

BEGOÑA (I): IRUDIA

Bizkaitarrok benetan maite dogu Begoña'ko gure Ama eta beraganako zaletasunak garoaz, Bilbao'tarrak batez be, baiña Bizkai'tar guztiak berari buruz berba egitera.

1.300n. urtean bagillaren 15'an sortu eban Haro'ko Lopez'tar Diego bostgarrenak Bilbao izeneko lurretan uria. Alan diño berak " fago en Bilbao" eta orregaz esan gura dau Bilbao aurretik be an egoala. Baiña noiztik egoan erreka-inguruan Bilbao erria? Ez dakigu baiña ba-dirudi erromatarren aldian or egoala, naizta Fabliobriga izena Bilbao'ri dagokiona izan ez. Erromatarrak gure Nerbion'eri Nerba esaten eutsoen eta bear ba'da erreka oneri jarraituz sartu ziran Bizkai barrura.

Urte orretan Bilbao Begoña'ren zati lez agertzen da eta auzo bi daukaz, bata salerosleena eta itxasgizonena bestea. Urte orretan Santiago'ren eleizea agertzen da buru lez Begoña'gaz amarrenak erdibana egiñez. Eleiz orretara batez be etorten ziran ibaitik Doneiakue'ren erromesak.

1.300n. urte orretan sortzen da Bilbao Begoñaren zati lez eta uria izateko, baiña ez da ori Begoña lenengoz aitatzen dauan agiria 1.162n. urtean aitatzen da toki lez.

Artagan muiñoaren gaiñean, Bilbao oñetan ebala, eleiza txiki bat zan Begoña'ko Andra Mari. Ezagutzen ez dogun eta iñoz nor dan be jakingo ez dogun irudigille batek egin eban Amaren irudia, uria sortu zan urte

inguruan. Non egin ete zan? Bizkaia'n? Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n antzeko irudi asko dagoz. Guztiak dauke alkarren antza. baiña Begoña'koa da ederti baliorik aundiena dauana. Gauza arrigarria da olako irudi ederra ain eleiza txikian ego-tea. baiña ez da aitzu bear Bizkai'ko Jaunaren eleizea zala eta Begoña monastegi bat zala. Dana dala, irud; ori izan da Bizkai'tarren biotzak beraganatu dauzana. irudiak 1,17 neurki zm goitik bera, goi-aurki baten jezarrita dago, begi ederrak zabalik, barretxua espanetan, barru-jantzia eta gaiñekoa eta garrikoa garrian. Gaiñeko jantziak izurrak daukaz belaunetan, oin biak oiñetakoakaz eta bien erdian azkenengo izurra. Aurrez. ezkerreko berna-gaiñean baiña erditik aurrean dago umea. Onek be barruko jantzia ta gaiñekoa daukaz. Amaren esku ezberra urnearen sorbalda-gaiñean dago. Umearen aurpegia txeratsua eta agerbide aundikoa da. eskumeagaz bedeinkapena emoten dau eta ezkerrean liburua dauka zabalik. Ez da irudi geldia Binzantzio'ko irudien edo erromanikuen antzera. Beste toki batzutako irudiak, esatera'ko Fruniz'koa. geldiagoa ta artezagoa da, barretxua barik eta umea be aurrera begira dala. Ezaugarri oneik Fruniz'ko au lenagokoa dala esan nai dabe.

Olako irudia ikusi dabe gure aurretikoak. gitxi aldatuta ikusten dogu guk be. Len zurezko koroia eukan baiña kendu egin eutsoen eta

urrezko burestuna ipiñi jakon. Lenago eskuman lorea eukan, baiña apurtu egin zan eta gaur aginte-makilea, zetroa, dauka.

Gaurko bizitzea ulertzeko lako irudia da, ez zarra eta ez gaztea, adin eldukoa. bizitzea zer dan eta gurea zelakoa dan ulertzeko lako. Bai, gure bizitza. gaurkoa, ulertzen dau, baita erdi-aroko euskaldun latzen bizitza be, edo beti burrukan ebiltzan aide nagusi ankerrena. Gudaz naikotuta Begoña´ra eltzen ziranean, oraindiño espatak odolduta eta barrua gorrotoz eukela, euren damua agertzeko etorten ziran eta, euren Ama Andra Maria´ren oiñetan belaunikatzen ziran Artagan´en, torre-etxeai eta bizitza ankerrai begira egoan Ama eta Ama onek bere semea aurkezten eutsen, bakea eskintzen eutsen. Begoña´ko Ama bakearen Ama da.

Irakurlea: Jose Ramon Urrutia - Jubilatua, Bilbo